naturaldia zinema

# Nat Zinema

## III. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEKO ZINEMA ERAKUSTALDIA

## III MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y MEDIO AMBIENTE DE GIPUZKOA

2023

MARTXOA
MARZO
23-30

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES

Trienekens

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Aurten ere, eta dagoeneko hirugarren urtea da, Gnat Zinemak 9 udalerritako zinemetako pantailen bidez naturara eta ingurumenera hurbiltzeko aukera eskaintzen digu.

***KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA*** erakusketak ematen digun gidoiari jarraituz, edizio honetako filmen hautaketaren helburua da «nola» galderari erantzun bat ematen saiatzea, eta horretarako testigantzak, dokumentalak eta adibideak erakutsiko dira ikusarazteko nola planetako leku askotan pertsonak, taldeak, elkarteak, enpresak eta gobernuak egunero saiatzen diren kolapso horri aurre egiten hainbat esparrutatik: klima aldaketaren azterketa zientifikoa, energia, ozeanoen babesa, ekonomia zirkularra, nekazaritza eta abeltzaintza, eta abar.

Hala eta guztiz ere, Gnaturaldiak arreta berezia jarri du beti **GIZAKIEK NATURAREKIN DUTEN HARREMANEAN**, eta erakutsi nahi izan du naturarekiko lotura horrek sentiaraziko digula planetaren parte garela eta, horrela, inguratzen gaituen natura maitatu eta errespetatuko dugu.

Azkenik, aurten ere ez ditugu ahaztu nahi naturan eta ingurumenean arreta jartzen duten euskal ekoizpenak. Horretarako, ekoizpen horiei eskainitako saio bat egingo dugu, **GURE BEGIRADA** izenburupean.

Goza dezagun!



## José Ignacio Asensio Bazterra

**INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA**
DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

Gnat Zinema 2023

Gnaturaldia Zinema

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Un año más, y ya es el tercero, Gnat Zinema vuelve a ofrecer en 9 municipios la oportunidad de acercarnos a la naturaleza y al medio ambiente a través de las pantallas de los cines.

Siguiendo el guión que nos marca la exposición ***CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL***, la selección de las películas de esta edición, pretende, por un lado, intentar dar respuesta a ese "cómo", mostrando testimonios, documentales, ejemplos, de cómo en muchas partes del planeta personas, grupos, asociaciones, empresas, gobiernos... intentan en su día a día hacer frente a este colapso desde diferentes ámbitos.

No obstante, Gnaturaldia siempre ha puesto especial atención en la **RELACIÓN DE LOS SERES HUMANOS CON LA NATURALEZA**, en mostrar que la conexión con la misma es la que nos hará sentir que somos parte del planeta y de este modo amar y respetar la naturaleza que nos rodea. También en esta edición, queremos mostrar al público las experiencias de personas que mantienen una relación especial con la naturaleza, cada una de ellas a su manera.

Por último, tampoco este año nos queremos olvidar de las producciones vascas que centran su mirada en la naturaleza y el medio ambiente. A tal fin tendremos una sesión dedicada a ellas, bajo el título de **GURE BEGIRADA**.

¡Disfrutemos!

# GnatZinema 2023

## III. GIPUZKOAKO NATURA ETA INGURUMENEKO ZINEMA ERAKUSTALDIA

## III MUESTRA DE CINE DE NATURALEZA Y MEDIO AMBIENTE DE GIPUZKOA

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Gnaturaldia zinema

**Naturarekin lotutako ikus-entzunezko edukiak, eta, bereziki, pertsonek naturarekin duten harremana islatzen dutenak, harreman horietan sakondu asmoz.**

Contenidos audiovisuales relacionados con la naturaleza y en especial, aquellos en los que se refleja la relación de las personas con ella para ahondar en profundidad en dichas relaciones.

**5**
**EGUN**
DÍAS

**MARTXOA**
MARZO
**23-30**

**9**
**UDALERRI**
MUNICIPIOS

**AZPEITIA**
**DONOSTIA**
**EIBAR**
**ERRENTERIA**
**MUTRIKU**
**OÑATI**
**ORDIZIA**
**TOLOSA**
**ZUMARRAGA**

**3**
**PRISMA**
PRISMAS

**11**
**FILM**
PELÍCULAS

*CON LA FUERZA DEL VIENTO*
*EL LEOPARDO DE LAS NIEVES*
*WE THE POWER*
*FIRE OF LOVE*
*AWARE*
*SALVAR TENERIFE*
*FOREST FOR THE TREES: THE TREE PLANTERS*
*JOY*
*CUERDAS*
*GANADO O DESIERTO*
*ENTRE MONTAÑAS*

**KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA**
CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL










**LANKIDETZA** / COLABORACIÓN

**BIHOTZ BERDEAK**




**PERTSONAK NATURAREKIN**
LAS PERSONAS CON LA NATURALEZA










**GURE BEGIRADA**





# MARTXOA MARZO 23-30/ 19:00

SAIO GUZTIAK
TODAS LAS SESIONES

## 23 OSTG/JU




**IREKIERA**
APERTURA

**DONOSTIA**
TEATRO PRINCIPAL
***Con la Fuerza del Viento***

## 24 OSTR/VI




**EIBAR**
COLISEO
***El Leopardo de las Nieves***




**MUTRIKU**
ZABIEL KULTUR ETXEA
***We the Power***

## 28 ASTR/MA




**ORDIZIA**
HERRI ANTZOKIA
***Fire of Love***




**AZPEITIA**
SOREASU
***Aware***




**DONOSTIA**
AQUARIUM
***Salvar Tenerife***

## 29 ASTZ/MI




**ZUMARRAGA**
ZELAI ARIZTI
***Con la Fuerza del Viento***




**OÑATI**
ZINEMA
***Forest for the Trees: the Tree Planters***






**ERRENTERIA**
NIESSEN
***Cuerdas + Joy***

## 30 OSTG/JU




**TOLOSA**
TOPIC
***Ganado o Desierto***

**AMAIERA**
CLAUSURA

---

**PRISMAK**
PRISMAS

**KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA**
CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL

**PERTSONAK NATURAREKIN**
LAS PERSONAS CON LA NATURALEZA

**GURE BEGIRADA**

**23**
**OSTG/**JU



**ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
INAUGURACIÓN EXPOSICIÓN

**11:00**

**DONOSTIA**
OKENDO PLAZA
***KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA***
*CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL*

# **APIRILA** ABRIL

**01**
**LARU/**SA




**17:00**
**DONOSTIA**
TABAKALERA:
KUTXA KULTUR PLAZA
*Bihotz Berdeak*
***Entre Montañas***

## **SARRERAK**
## ENTRADAS

**III. Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldiko saio guztietarako sarrerak DOAKOAK izango dira.**

Las entradas para todas las sesiones de la III Muestra de Cine de Naturaleza y Medio Ambiente de Gipuzkoa, Gnat Zinema 2023 serán GRATUITAS.

**Lortu zure sarrera**
**Consigue tu entrada**

- **Sede bakoitzeko ohiko moduak erabiliz.**
  Utilizando los cauces habituales de cada sede.
- **Esteka hau erabiliz, saio bakoitzeko sarrerak nola lortu adierazten da bertan:**
  A través de este enlace, con información específica de cómo obtener las entradas de cada sesión:
  **https://gip.eus/sarrerak**

## Erakusketa/Exposición



**Martxoaren 23tik apirilaren 10era**
Del 23 de marzo al 10 de abril

**LEKUA** LUGAR
**Okendo plaza** / Plaza Okendo

**IREKIERA** INAUGURACIÓN
**Martxoak 23, 11:00** / 23 de marzo, 11:00

**PARTE HARTUKO DUTE** PARTICIPARÁN
**José Ignacio Asensio**, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatua / Diputado de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente
**Jesús Martínez**, Trienekens
**Álvaro Alzaga**, AXA Seguros, Ipar-Eremuko Lurralde-Zuzendaria / Director Territorial Zona Norte
**Joaquín Araújo**, erakusketaren komisarioa / comisario de la exposición

### KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA

Nola eragiten die klima aldaketak gure munduko ekosistema nagusiei? Nola ari da aldatzen paisaia, bereziki babestutako eremuetan? Galdera horiei erantzun nahi die **"Klima aldaketa"** erakusketak, AXA Fundazioak eta Lunwerg Editores argitaletxeak antolatutakoak, munduko eremu jakin batzuetan paisaien eta bizitzaren hauskortasuna erakusten duten hirurogeita hamar irudi zirraragarriren bidez.

Baina, aldi berean, **itxaropen** zantzu bat ere badakar: egoera horri buelta emateko gizakia egiten ari dena erakusten du. Horregatik, erakusketaren amaieran irudi batzuk daude, klima aldaketaren eragina geldiarazteko hartzen ari diren **neurriak** erakusten dituztenak: ikerketa, naturaguneen babesa, karbonoaren eta berotegi efektuko gasen emisioen prezioa finkatzea, herrialde osoek jasangarritasun irizpideak eta energia garbiko ekonomiak aplikatzea, nekazaritza birsortzailea, energia berriztagarrien erabilera edo garraio ez-kutsatzaile berriak.

**Joaquín Araújo naturalista da erakusketaren komisarioa**, eta aire zabalean erakutsiko da Espainiako hainbat hiritan. Horrela, bisitariek bidaia bat egin ahal izango dute planetan barrena, geldialdiak eginez eragiten diguten fenomeno meteorologiko nagusietan, klima aldaketak eragindako klima eta paisaia desberdinetan edo eraldaketa horren ondorio nabarienetan. Gainera, arreta jartzen du ezer egin ezean sortuko diren egoeretan: glaziarren galera, animalien migrazioak, garaiz kanpoko loraketak, bero-boladak, itsasoko uren osaeraren aldaketa, baso gaixoak edo itsas mailaren igoera.

PATROCINA AXA fundación AXA

ORGANIZA LUNWERG EDITORES

### CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL

¿Cómo está afectando el cambio climático a los principales ecosistemas de nuestro mundo? ¿Cómo está cambiando el paisaje en zonas especialmente protegidas? Son preguntas a las que la exposición "**Cambio climático**", organizada por la Fundación AXA y Lunwerg Editores, trata de responder a través de setenta impactantes imágenes que reflejan la fragilidad de los paisajes y de la vida en determinadas zonas del mundo.

Pero también trae consigo un atisbo de **esperanza**: muestra lo que el ser humano está haciendo para revertir esta situación. Por eso la muestra culmina con una serie de imágenes que muestran las **medidas** que se están tomando para frenar el impacto del cambio climático: la investigación, la protección de espacios naturales, la fijación del precio del carbono y emisiones de gases de efecto invernadero, la aplicación por parte de países enteros de criterios de sostenibilidad y economías de energía limpia, la agricultura regenerativa, el uso de energías renovables o los nuevos transportes no contaminantes.

La exposición está **comisariada por el naturalista Joaquín Araújo** y se exhibirá al aire libre en distintas ciudades de España. Así, permitirá a los visitantes hacer un viaje por el planeta, deteniéndose en los principales fenómenos meteorológicos que nos afectan, en los diferentes climas y paisajes afectados por el cambio climático o en los efectos más evidentes de esta transformación. Además, pone el foco en los escenarios a los que nos enfrentaremos si no actuamos: desde la pérdida de glaciares, a las migraciones animales o las floraciones a destiempo; o desde las olas de calor o el cambio de la composición de las aguas marinas, a los bosques enfermos o la subida del nivel del mar.




# Con la Fuerza del Viento *(42 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania
Castellano

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Juan Manuel Sotillos

## KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA / CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL

**Haize lera «zero emisioko» ibilgailu polarra da, haize propultsio hutsez ibiltzen dena. Dokumental honek erakusten du Indlandsis-aren, Groenlandiako izotz geruzaren, mendebaldetik ekialdera egin den lehen zeharkaldia haize lera erabiliz. Nazioarte mailan lur polarretan aditu handia den Ramón Larramendik gidatuta, mila kilometro baino gehiago egin ziren abentura eta esplorazio dosi handiak zituen espedizio zientifiko batean. Espedizio honen mugarri garrantzitsuenetako bat izan da «Nunatak» berri bat aurkitzea (izotzetik ateratzen den mendia), klima aldaketak eragiten duen izotz-urtzearen ebidentzia garbiak erakutsiz. Zeharkaldian, izotz laginak jaso ziren hainbat eremutan eta geruzatan; baita aire laginak ere (dagozkion mikroorganismoekin batera) hainbat azterlan egiteko, betiere klima aldaketaren aurkako borrokan pentsatuz.**

El Trineo de Viento es un vehículo Polar “cero emisiones”, tirado por cometas, cuya única propulsión es el viento. Este documental muestra la primera travesía que se ha realizado de Oeste a Este del Indlandsis, casquete polar de Groenlandia, con el Trineo de Viento. Más de mil kilómetros en una expedición científica con fuertes dosis de aventura y exploración, comandada por Ramón Larramendi, gran experto en tierras polares a nivel internacional. Uno de los grandes hitos de esta expedición ha sido el descubrimiento de un nuevo Nunatak (montaña que emerge del hielo), demostrando claras evidencias del derretimiento del hielo derivado del cambio climático. En el transcurso de la travesía se recogieron muestras de hielo en diferentes zonas y en diferentes capas; así como muestras de aire con sus microorganismos para realizar diferentes estudios siempre pensando en la lucha contra el cambio climático.

**ESTREINALDIA** / ESTRENO

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 23 | 19:00 | DONOSTIA | TEATRO PRINCIPAL | **Juan Manuel Sotillos** *Espedizioko partaidea, zuzendaria / Participante en la expedición, director (bi saioetan / en las dos sesiones)* **Lucía Hortal** *Espedizioko partaidea, zientzialaria / Participante en la expedición, científica (Donostian bakarrik / solo en Donostia)* |
| 29 | 19:00 | ZUMARRAGA | ZELAI ARIZTI | |




## PERTSONAK NATURAREKIN / LAS PERSONAS CON LA NATURALEZA

**Tibeteko goi-lautadaren bihotzean, Vincent Munier argazkilariak Sylvain Tesson idazlea gidatuko du, elurretako lehoinabarraren bila. Zelataren arte delikatuaren, aztarnen irakurketaren eta animaliak begiztatzeko beharrezkoa den pazientziaren inguruko lehen irakaspenak emango dizkio. Presentzia ikusezinak bizi diren gailurretara bidaiatzean, bi gizonak hizketan hasiko dira gizakiok izaki bizidunen artean daukagun lekuari buruz, eta munduaren edertasuna ospatuko dute.**

En el corazón del altiplano tibetano, el fotógrafo Vincent Munier guía al escritor Sylvain Tesson en su búsqueda del leopardo de las nieves. Le introduce en el delicado arte del acecho, en la lectura de las huellas y en tratar de tener la paciencia necesaria para contemplar a los animales. Al viajar a las cumbres habitadas por presencias invisibles, los dos hombres tejen un diálogo sobre nuestro lugar entre los seres vivos y celebran la belleza del mundo.

**SARIAK** / PREMIOS
Filme Dokumental Hoberena / Mejor Película Documental, CÉSAR 2022 Frantziako Zine Akademia / Academia de Cine de Francia.
**FESTIBALAK** / FESTIVALES
FICMEC 2022 – Inaugurazioko filmea/ Película de Inauguración, Educacine Madrid, Teatro Chico – Santa Cruz de la Palma.

## *El Leopardo de las Nieves* *(92 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania
Castellano

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Marie Amiguet

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Wanda Films

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 24 | 19:00 | EIBAR | COLISEO | Lexeia Larrañaga, Alex Gutiérrez *(Avis Producciones)* |

## KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA / CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL




**Imajina ezazu energia sistema tradizionala aldatzen duzula eta zure bizilagunei itzultzen diezula energia garbia ekoizteko ahalmena. «We the Power» filmak lagun, familia eta ameslariei jarraitzen die beren ahaleginean, lege oztopoak eraitsi eta energia-konpainia handiei boterea kentzeko, tokian tokikoen esku jartzearren. Filmak Alemaniako Oihan Beltzean, Gironako (Espainia) antzinako kaleetan eta Londreseko (Ingalaterra) hiriko teilatu lauetan bizi izandako tokiko kooperatiben prozesua kontatzen du, energia berriztagarrien iraultzarako bidea irekitzen duten eta finantza arloan osasungarriagoak eta egonkorragoak diren komunitateak eraikitzen dituzten bitartean.**

Imagina cambiar el sistema energético tradicional y entregar el poder de la producción de energía limpia de vuelta a tus vecinos. "We the Power" sigue a amigos, familias y visionarios en su esfuerzo por derribar las barreras legislativas y arrebatarle el poder a las grandes compañías energéticas para ponerlo en manos locales. La película narra el proceso de cooperativas locales desde las profundidades del Bosque Negro de Alemania a las antiguas calles de Girona, en España, y a las azoteas urbanas de Londres, Inglaterra, mientras allanan el camino para la revolución de las energías renovables y construyen comunidades más saludables y estables financieramente.

## *We The Power*

*(39 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Ingelesa, alemana, katalana (azpitituluak gaztelaniaz)
Inglés, alemán, catalán (subtítulos en castellano)

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
David Garrett Byars

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Patagonia Films

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 24 | 19:00 | MUTRIKU | ZABIEL KULTUR ETXEA | **Eneko Olabarrieta** *Energia gaietan aditua / experto en temática energética* |




## Salvar Tenerife

*(44 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania (azpitituluak gaztelaniaz)
Castellano (subtítulos en castellano)

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Felipe Ravina

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Felipe Ravina

## KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA / CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL

**Salvar Tenerife dokumentalak Tenerife uharteak jasaten duen gehiegizko ustiapena erakusten du, inoiz ez bezala. Urtean 6 milioi turista baino gehiago jasotzen ditu eta 930.000 biztanle ditu. Zifra horiek uhartea azken hamarkadetan eta gaur egun kudeatu den modu negargarriaren emaitza dira. Hazkundea amaigabea eta jasanezina da, eta inoiz baino gehiago mehatxatzen ditu naturaguneak eta Tenerifeko biodibertsitatea, gero eta hondatuago dagoena. Dokumental honek benetako garapen jasangarrirako aldaketa bultzatu nahi du, etorkizunean ere naturarekin batera bizitzen eta Tenerife (eta gainerako Kanariar Uharteak) egoera basati eta naturalean gozatzen jarraitzeko aukera izan dezagun.**

Salvar Tenerife muestra, como nunca antes, la sobreexplotación a la que está sometida la isla de Tenerife. Recibe más de 6 millones de turistas al año y tiene una población de 930.000 habitantes. Estas cifras son fruto de la manera nefasta en la que se ha gestionado la isla durante las últimas décadas y actualmente. Un crecimiento infinito e insostenible que está amenazando más que nunca a los espacios naturales y a la biodiversidad tinerfeña, cada vez más deteriorada. Este documental pretende impulsar un cambio hacia un desarrollo sostenible real, para que podamos tener un futuro en el que convivamos con la naturaleza y podamos seguir disfrutando de Tenerife (y el resto de Canarias) en su estado salvaje y natural.

**SARIAK** / PREMIOS
Irabazlea / ganadora Barandilla de Oro Cimasub 2022 (Ciclo Internacional de Cine Submarino de San Sebastián).

**FESTIBALAK** / FESTIVALES
Sail ofiziala /selección oficial: Festival Boreal, Canarias Surf Film Festival, Festival de Cine de Fuerteventura.
Izendapena/ nominación: Click & Roll, Los40.

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 28 | 19:00 | DONOSTIA | AQUARIUM | **Felipe Ravina** *Zuzendaria / Director* |

**LANKIDETZA** / COLABORACIÓN
cimasub




## PERTSONAK NATUREAREKIN / LAS PERSONAS CON LA NATURALEZA

**Katia eta Mauricie Kraften maitasun istorio epikoa, sumendiak inoiz baino hurbilagotik filmatzeko bizitza arriskuan jarri zuen esploratzaile bikotearena. Katia geokimikoa zen eta Maurice geologoa. Etna eta Stromboli erreferente zituzten. Batera partekatu zuten bizitza liluragarri bat, muga-mugaraino eramandako maitasun bolkaniko eta jostalari bat. 70eko hamarkadan, baterako bilaketa bati ekin zioten, bi hamarkada iraungo zuena eta mundu osoan bidaiatzera eramango zituena, sumendien erupzioa aztertzeko. Zaire, Hawaii, Indonesia, Estatu Batuak, Japonia... Mauricek 16 mm-tan filmatzen zuen, eta Katiak kraterrean bertan egiten zituen argazkiak. Ez zen inoiz antzeko irudirik ikusi. Sara Dosa zinemagileak abentura gogoangarri bat eraiki du Katia eta Mauriceren 200 orduko argitaratu gabeko artxiboko materialetik eta ohar eta idatzi pertsonaletatik abiatuta.**

La épica historia de amor de Katia y Mauricie Kraft, una pareja de exploradores que se jugó la vida por filmar los volcanes a una proximidad jamás vista. Katia era geoquímica y Maurice geólogo. El Etna y el Stromboli, sus referentes. Juntos compartieron una vida apasionante, un amor volcánico y juguetón vivido al límite. En los años 70 iniciaron una búsqueda conjunta que duraría dos décadas y los llevaría a viajar por todo el mundo para estudiar la erupción de los volcanes. Zaire, Hawaii, Indonesia, Estados Unidos, Japón... Maurice filmaba en 16mm y Katia hacía fotos a pie de los cráteres. Nunca se habían visto unas imágenes similares. La cineasta Sara Dosa ha construido una aventura memorable a partir de 200 horas de material de archivo inédito y de las notas y escritos personales de Katia y Maurice.

**SARIAK** / PREMIOS
Sail ofiziala / Selección oficial SXSW 2022 FILM FESTIVAL, Publikoaren saria / Premio del público VISIONS DU RÉEL 2022, Irabazlea filme hoberena / Ganadora mejor película DOCS BARCELONA FESTIVAL 2022, Saria/ premio Jonathan Oppenhein dokumental montaia / montaje documental SUNDANCE FILM FESTIVAL 2022.

# *Fire of Love*

*(93 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Frantsesa eta ingelesa (azpitituluak euskaraz)
Francés e inglés (subtítulos en euskara)

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Sara Dosa

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
National Geographic

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 28 | 19:00 | ORDIZIA | HERRI ANTZOKIA | Ainhoa Alonso *Geologian doktorea / Doctora en Geología* |




## **PERTSONAK NATUREKIN /** LAS PERSONAS CON LA NATURALEZA

**Gerard Olivé-ren dokumentala. Edertasun naturala maite du, eta gure herrialdeko tontor enblematikoenetako batzuetan neguko bibakak bakarka egiten espezializatu da, esperientzia horien bidez zoriontasuna bilatuz.**

Documental de Gerard Olivé, un amante de la belleza natural que se ha especializado en hacer vivacs invernales en solitario, en algunos de los picos más emblemáticos de nuestro país, buscando a través de estas experiencias la felicidad.

**SARIAK** / PREMIOS

Dokumental Labur Hoberena / Mejor Corto Documental, CANNES SHORTS
Natura/Bidai filme hoberenea / Mejor Película de Naturaleza/Viajes, CANADIAN CINEMATOGRAPHY
2022: Dokumental Hoberena/ Mejor Documental, GOLDEN FERN FILM AWARDS - Filma Inspiratzaile Hoberena / Mejor Película Inspiradora, NEVADA INTERNATIONAL FILM FESTIVAL - Dokumental Hoberena / Mejor Documental, UKRAINIAN DREAM FILM FESTIVAL - Dokumental Labur Hoberena / Mejor Corto Documental, NITIIN INTERNATIONAL FILM FESTIVAL...

# *Aware*

*(35 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania
Castellano

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Gerard Olivé

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 28 | 19:00 | AZPEITIA | SOREASU | Gerard Olivé<br>*Zuzendaria eta protagonista / Director y protagonista* |




## GURE BEGIRADA

**Gaur, Ritak bilera garrantzitsu bat du bere abesbatzako kideekin: emakumeen abesbatza desegiteko arriskuan dago, galdu egin dutelako udalak entsegu lokala alokatzeko ematen zien dirulaguntza. Alabaina, herritik metro gutxira instalatutako petrolio-findegi handiak eta guztiz kutsatzaileak laguntza tentagarria eskaini dio taldeari, abesbatzarentzat konponbidea izango litzatekeena.**

**Emakumeek beren ikuspuntuak eztabaidatzen dituzten bitartean, Rita eta bere seme Ramón prozesu judizial batean murgilduta daude laneko baja bat lortzeko, semeak enpresa horretan hainbat urtez lan egin ondoren hartutako gaixotasuna dela eta.**

Hoy Rita tiene una reunión importante con sus compañeras de canto: la coral de mujeres de la que forma parte corre el peligro de disolverse porque han perdido la subvención municipal con la que alquilaban el local de ensayo. Sin embargo, la enorme refinería de petróleo instalada a escasos metros del pueblo y altamente contaminante, ha ofrecido un tentador patrocinio al grupo que significaría la salvación de la formación.

Mientras las mujeres discuten sus distintos puntos de vista, Rita y su hijo Ramón están inmersos en un proceso judicial para conseguir una baja laboral a causa de la enfermedad contraída por su hijo tras años de trabajo en dicha empresa.

**SARIAK** / PREMIOS

Fikziozko film labur onenerako izendatua / Nominado a Mejor cortometraje de ficción Premios Goya 2023,
Film labur onena / Mejor Cortometraje Premios Forqué 2023, etc.

## *Cuerdas*

*(29 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania
Castellano

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Estibaliz Urresola Solaguren

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Sirimiri Films, Katz Estudio, Gariza Films

| Martxoa<br>Marzo | Ordua<br>Hora | Udalerria<br>Municipio | Lekua<br>Lugar | Aurkezpena<br>Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 29 | 19:00 | ERRENTERIA | NIESSEN | Estibaliz Urresola Solaguren<br>*Zuzendaria / Directora* |




## GURE BEGIRADA

**Nola sentituko zinateke bi familiako ama izango bazina? Uztartu beharko bazenitu zure bi seme-alaben ama izatea eta gure planetan oraindik aske bizi diren mendiko azken goriletako batzuen babesle izatea? Hori da Joyren historia.**

¿Cómo te sentirías si fueras madre de dos familias? ¿Si tuvieras que compaginar la maternidad de tus dos hijos, con la protección de algunos de los últimos gorilas de montaña que aún viven en libertad en nuestro planeta? Esta es la historia de Joy.

**SARIAK** / PREMIOS
Mendi Film Festival 2022 - Ganador del mejor cortometraje del festival.

**FESTIBALAK** / FESTIVALES
Wildscreen Festival, Official Selection Big Sky Documentary Film Festival (finalista mejor cortometraje), Banff Centre Mountain Film and Book Festival, Environmental Film Festival in the Nation's Capital, Ecozine Film Festival.

### *JOY*

*(22 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Ingelesa (azpitituluak gaztelaniaz)
Inglés (subtítulos en castellano)

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Aner Etxebarria

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Ana Angulo, Itxaso Frau

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 29 | 19:00 | ERRENTERIA | NIESSEN | **Aner Etxebarria** *Zuzendaria / Director* |




## *Forest for the Trees: The Tree Planters* *(91 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Ingelesa (azpitituluak euskaraz)
Inglés (subtítulos en euskara)

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Rita Leistner

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Leistner Pictures Inc.

## **PERTSONAK NATURAREKIN /** LAS PERSONAS CON LA NATURALEZA

**Bisualki eta artistikoki paregabea den dokumental honek aztertzen ditu Kanadako mendebaldeko kostaldeko zuhaitz-landatzaileen komunitate baten alderdi fisikoak eta emozionalak. Rita Leistner-ek, argazkilari saritu, fotokazetari, zinemagile eta zuhaitz-landatzaile ohiak, argazki finkoak eta filmazioak trebetasunez ehuntzen ditu zuhaitz-landatzaileen esperientzietan dauden kontraesanak deskribatzeko: zailtasunak eta sendabidea; bakardadea eta kide izatearen poza, giza izaeraren metafora zinematografiko adierazgarri bat sortuz. Kausa komun bat topatzean -nork bere burua ezagutzea eta beren zeregin paregabearen esanahia-, zuhaitz-landatzaileek euren burua eta elkarrena berreskuratzen dute ingurumena lehengoratzeko prozesuan.**

Este documental visual y artísticamente único explora los aspectos físicos y emocionales de una comunidad de plantadores de árboles de la costa oeste de Canadá. Rita Leistner, una galardonada fotógrafa, fotoperiodista, cineasta y antigua plantadora de árboles, entretejiendo hábilmente fotos fijas y filmaciones, describe las contradicciones en las experiencias de los plantadores de árboles: las dificultades y la curación; la soledad y la alegría de pertenecer, creando una elocuente metáfora cinematográfica de la condición humana. Al encontrar una causa común, el autoconocimiento y el significado de su formidable tarea, los plantadores de árboles se restauran a sí mismos y entre sí en el proceso de restauración del medio ambiente.

**SARIAK** / PREMIOS
Mendiko irudirik hoberena / mejor imagen de montaña BANFF 2022, "Human Ecology" Suncine 2022, Special Jury Prize Spirit of Activism, Green Film Festival of San Francisco 2022, Winner Audience Favourite Feature, Victoria Film Festival 2022.

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 29 | 19:00 | OÑATI | ZINEMA | Irene Sierra<br>Xabier Urbina<br>*Ekoliderrak* |




# Ganado o Desierto

*(84 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania, ingelesa (azpitituluak gaztelaniaz)
Castellano, inglés (subtítulos en castellano)

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Francisco Vaquero

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Metáfora Visual

## KLIMA ALDAKETA, NOLA SAIHESTU KOLAPSO GLOBALA / CAMBIO CLIMÁTICO, CÓMO EVITAR UN COLAPSO GLOBAL

**klima aldaketa lehengoratzeko borrokak jomugan jartzen ditu animaliak. Dokumental honen helburua da erakustea nola erabiltzen den abeltzaintza larreak, lurzoruak, zuhaiztiak eta ura leheneratzeko. Ganaduaren maneiu egokia modu errealean erakusten da, ekosistemak eta landa-ekonomiak lehengoratzeko irtenbide bat gisa.**

La lucha por revertir el cambio climático está poniendo a los animales en el punto de mira. El propósito de este documental se centra en mostrar el uso de la ganadería para la regeneración de los pastos, los suelos, la arboleda y el agua. El buen manejo del ganado se muestra de manera real como una solución para la restauración de los ecosistemas y las economías rurales.

**AURRESTREINALDIA** / PREESTRENO

**SARIAK** / PREMIOS
Dokumental Hoberena / Mejor Documental Sol de Orol Suncine 2022, Pelikula hoberena / Mejor Película Cambio Climático NIFF Mancomunidad Comarca Pamplona 2022, 2022 Winner Cine Eco Seia International Feature Film Youth Award, Luzemetraia Dokumental Hoberena/ Mejor Largometraje Documental AQP Festival 2022, Aipamen Berezia / Mención Especial MAFICI, ...

| Martxoa Marzo | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 30 | 19:00 | TOLOSA | TOPIC | **Francisco Vaquero** *Zuzendaria eta koproduktorea / Director y Coproductor* **Gustavo Ales** *Koproduktorea eta maneiu holistikoan aditua / Coproductor y experto en manejo holístico* |

## Saio Berezia/Sesión Especial




# *Entre Montañas*

*(71 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Gaztelania
Castellano

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Unai Canela

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Wanda Films

BIHOTZ BERDEAK

**Kutxa Ekogunearen Bihotz Berdeak programarekin lankidetzan, aurten lehen aldiz saio berezi bat egingo da programa honetan parte hartzen duten 12 eta 15 urte bitarteko gazteentzat bakarrik. “ENTRE MONTAÑAS” filma aukeratu da.**

En colaboración con el programa Bihotz Berdeak de Kutxa Ekogunea, este año por primera vez se celebrará una sesión especial dirigida exclusivamente a los jóvenes de entre 12 y 15 años que participan en este programa. La película elegida es “ENTRE MONTAÑAS”.

---

**Unai nerabea Pirinioetako herri txiki batean dago pandemiagatik konfinatuta. Urtebete baino gehiagoz, intentsitate handiz biziko du urtaroen iragaitea eta hurbileneko naturarekin, askotan ezezagunena ere baden horrekin, konektatuta sentitzearen zirrara.**

Unai es un adolescente confinado por la pandemia en un pequeño pueblo de los Pirineos. Durante más de un año, vive con intensidad el paso de las estaciones y la emoción de sentirse conectado con la naturaleza más cercana y, muchas veces, más ignorada.

**FESTIBALAK** / FESTIVALES
Festival de San Sebastián 2022, Mountain Film Festival Banff , Festival Atlántida

| Abril Apirila | Ordua Hora | Udalerria Municipio | Lekua Lugar | Aurkezpena Presentación |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 17:00 | DONOSTIA | TABAKALERA, KUTXA KULTUR PLAZA | Unai Canela *Zuzendaria eta protagonista / Director y protagonista* |

**LANKIDETZA** / COLABORACIÓN

ekogunea kutxa FUNDAZIOA

# Zinema emanaldiak ikasleentzat
# Sesiones para escolares

**Aurtengo edizioaren baitan, GnatZinemako sede diren udalerrietako DBH 1. eta 2. mailako ikasleentzat naturari buruzko zinema emanaldiak antolatu ditugu, Udalarekin elkarlanean.**

En el marco de la edición de este año se han organizado, en colaboración con los Ayuntamientos, proyecciones de cine sobre la naturaleza dirigidas al alumnado de 1º y 2º de la ESO de los municipios que son sede de GnatZinema.

## Datuak/Datos

**20** IKASTETXE / CENTROS ESCOLARES

**2.075** IKASLE / ALUMN@S




Barbakana, otsoaren aztarna

## *Barbakana, otsoaren aztarna*

*(70 min)*

**HIZKUNTZA** IDIOMA
Euskara
Euskera

**ZUZENDARITZA** DIRECCIÓN
Arturo Menor

**EKOIZLEA** PRODUCTORA
Acajú Comunicación Ambiental

Ekoizpen honek hiru istorio bilatzen ditu:

- Alde batetik, Acajú ekoiztetxeko lantalde teknikoarena, zeina saiatuko baita otsoak filmatzen natura bete-betean. Erronka zail horri erantzun beharko diote, eta halako filmaketa batek sortzen dituen arazo ugariak gainditu.
- Beste alde batetik, otso saldo baten bizimodua erakutsiko da, haren ingurune naturalean. Ikusiko dugu nola jaiotzen diren otsokume berriak, eta ezagutuko dugu nolakoa den familia-klan baten egunerokoa.
- Eta sartuko gara otsoaren errealitate sozialaren barruan: espezie bat, zeinak bihotza sutan jartzen baitu irrikaz nahiz gorrotoz, eta maitasuna eta gaitzespena sortzen baititu. Abeltzainak, otsoaren alde eta kontra daudenak.

Hiru kontakizun paralelo, denboran eta espazioan, azkenean bat egingo dutenak. Ahalegintzearen eta gainditzearen kronika bat, ezagutzera eman nahi duena zernolako garrantzia duen otsoak ekosistema iberiarretan, eta zer kontserbazio-arazo dituen. Hori dena zinema digitaleko kamerarik modernoenekin filmatua, filmaketa-tresnarik aurreratuenekin.

## SAIOEN EGUTEGIA
2023 Martxoa

| Martxoa / Marzo | Udalerria / Municipio | Lekua / Lugar |
|---|---|---|
| 21 | ORDIZIA | HERRI ANTZOKIA |
| 22 | OÑATI | ZINEMA |
| 23 | AZPEITIA | SOREASU |
| 24 | MUTRIKU | ZABIEL KULTUR ETXEA |
| 24 | EIBAR | COLISEO |
| 28 | EIBAR | COLISEO |
| 29 | ERRENTERIA | NIESSEN |
| 30 | TOLOSA | LEIDOR |
| 31 | ZUMARRAGA | ZELAI ARIZTI |



# Gnaturaldia Zinema

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

**EGOITZA LAGUNTZAILEAK**
SEDES COLABORADORAS

Azpeitia Denontzat · EIBARKO UDALA · ZUMARRAGAKO UDALA · Geoparkea Euskal Kostaldea - Costa Vasca · TOLOSA · Oñatiko NaturEskola · ERRENTERIA UDALA · ordizia bizi herria · DONOSTIA SAN SEBASTIAN AQVARIVM

**LAGUNTZAILEAK**
COLABORADORES

Trienekens

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro